

J.F. AIZKIBEL ETA EGUNGO HIZTEGIGINTZA

Liburu eta entziklopedien laguntzaz bi mende atzerantz egin eta euskal lexikografiaren gizon erraldoi bat aurkitzen dugu: Jose Frantzisko Aizkibel Epelde.

Euskaltzaindiak horrelakoetan egin ohi dituen jardunaldiak direla eta, izan du oihartzunik komunikabideetan; ez, agian, behar zukeen adinakoa. Nik berriro hurbildu nahi nuke gure aurretiko jakintsu honengana, *Karmel* aldizkariaren irakurleei ere zor baitzaie haren aipua. Bide batez, J.F. Aizkibelen itzalpean jarririk, oraingo hiztegegintzaren zertzelada eta joera batzuez gogoeta laburra egingo dut.

Haren bizitza eta lana

Jose Frantzisko Aizkibel Azkoitian jaio zen 1798ko martxoaren 9an. Berberak dioskunez, gaztelaniazko gramatikaren hasimasetan sartu orduko, latina ikasten hasi zenean jabetu zen euskara-gaztelaniazko hiztegi baten beharraz: "desde que empecé a estudiar la gramática latina, cuando aun no tenía rudimentos de la castellana, conocí la necesidad de un diccionario basco-español en el país en que tuve la suerte de nacer". Bera bezala gainerakoak ere horretaz ongi oharturik egon arren, mendeak eta mendeak joan direla, baina hutsune hori ez dela betetzen diosku. Aita Larramendik bai, euskal hiztegia, hau da, euskara abiapuntutzat harturik egindakoa burutu nahi zuela, baina euskaraz ez zuela libururik nahikoa aurkitu gaztelaniara

itzultzeko eta, alderantzizko bidea egitea erabaki zuela; hots, gaztelania abiapuntutzat hartuz euskarara eta latinera itzultzea. Zorigaitz handitzat du euskal hiztegirik ez izatea eta honela adierazten digu bere pena: "Desgracia es sin duda ninguna la de la nación Euskalduna, que desde remotos tiempos no ha podido conseguir se imprima un diccionario bascongado cuando por otra parte está haciendo los mayores esfuerzos para conservar sus antiguos fueros y libertades, usos y costumbres, cuya antigüedad es inmemorial, como de la lengua Euskera. El único documento fehaciente de su independencia es la misma lengua, que de un siglo a esta parte vá adquiriendo cada vez mas importancia, en el extranjero, donde se aprecian mas los conocimientos en toda clase de ciencias particularmente".

Kalonje baten zerbitzari izan zen eta honek Erromara eraman zuen. Horrela, bere kontura ikasiz, kultura zabal baten jabe egin zen. Geroago, Granadako Dukearen idazkari izan zen, harekin Europan zehar bidaiari ugari eginez. 1821 eta 1826 bitartean Raimundo Diosdado jesulagunak euskararen ortografiaren berrikuntza egiteko burua berotu zion Erroman. 1833an Euskal Herrian zehar ibili zen. Bilbon Ulibarri ferratzailearekin izan zuen harremana eta honek, euskal hiztegi bat egiten ari zela jakinik, saski bete liburu zahar ekarri zion eta oparitzat eman, herriaren aldeko ekintza izango zelakoan. Haren irrika euskaraz idatziak ziren liburuak ahalik eta gehien biltzea zen. Liburuzale handia zen, izan ere. Horrela, liburutegi aberatsa zuen. *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco* obraren I. liburukian hauxe irakurtzen dugu: "En 1848 residía en Toledo, donde poseía una de las mejores bibliotecas técnicas del País". Bere eskuetara iristen ziren liburuak zehatz-mehatz deskribatu ohi zituen Toledon egoitza zuela bere eskuz idatzitako liburu batean. Izenburu hau jarri zion liburu horri: *De la Bibliografía y Literatura Bascongada y de sus diferentes dialectos*. Berrehun obra inguru dira guztiz hor aipatzen dituenak. Lan bibliografiko honetan maiz aipatzen du euskaldunek beren hizkuntzare-

kiko zuten zabarkeria eta utzikeria, liburuzaleari horrek ekarri ohi dizkion eragozpenak, atzera-aurrerak eta pausu galduak agerian jarriz. Hala dio berak: "Por experiencia propia sabemos lo que cuestan estas investigaciones en un país, en donde se ocupan y se cuidan tan poco de su lengua". Justo Garateren iritziz Aizkibel omen zen XIX. mendean Humboldt-en lanak ondoen ezagutu eta aztertu zituen euskalduna. Geroxeago ikusiko ditugu hark prusiar jakintsu eta euskaltzalearen lanez, bereziki hiztegiari dagozkionez egindako aipamenak. Ez zen ezkondu; liburuak zituen bere maitale eta haiekin bizi zen Tolodoko Munarriz etxean, emakume zahartxo batek etxeko lanak eta garbikuziak egiten zizkiola. Hantxe hil zen 1865ean.

Berrogei urte zituela, 1838an, amaituak zeuzkan bere *Diccionario Vasco-Español*, *La Gramática Analítica* eta *Adiciones y Notas a Humboldt* eta hasia zen euskalkien ikerketak egiten. 1854an egina zuen *Tratado de las Etmologías* lana eta gaztelaniatik euskararako hiztegiaren *A letra*. Haren lan nagusia hiztegia da. Ez zuen berak ikusi argitaraturik. 1885an Eusebio Lopez-ek argitaratu zuen Tolosan. Luis Villasantek bere *Historia de la Literatura Vasca* liburuan hauxe dio hitzez hitz: "Lástima que tomó como fuente principal a Larramendi, el cual, con todas sus tachas y defectos, se ha volcado a la obra de Aizkibel; y así al caer en descrédito el Diccionario Trilingüe, cayó también éste, que es su hijo fiel. Si en vez de seguir a Larramendi, hubiera confeccionado su catálogo de palabras vascas a base de los vocablos que hallaba en su rica colección de libros vascos, su obra hubiera tenido un valor más positivo y permanente". Ez dakigu iritzi honek oinarri sendorik duen ala ez. Literaturaren historiazko liburuetan oso labur eman ohi da autoreen berri, eta iritziak frogatzeko aukera handirik ez da izaten hor. Dena dela, Luis Villasantek dioena eta Aizkibelek berak hiztegiaren sarreran dioena ez datoz bat. Honela dio hiztegiaren sarreran: "Convencido íntimamente de la utilidad de las citas, que destierran toda sospecha de que hayan podido inventar los lexicógrafos algunas de las palabras que no es-

CASA EDITORIAL DE EUSEBIO LOPEZ, SUCESOR DE LA VIUDA DE MENDIZABAL.

DICCIONARIO BASCO-ESPAÑOL

TITULADO

EUSKERATIK ERDERARA

BIURTZEKO

ITZTEGIA.

SU AUTOR

D. J. FRANCISCO DE AZQUIVERA.



TOLOSA.

Establecimiento tipográfico de EUSEBIO LOPEZ, Solana, 8.



tán en uso, pongo todo mi cuidado en enriquecer este diccionario con el mayor número de citas que puedo, particularmente aquellas voces ó dicciones que son peculiares de un solo dialecto, ó no son comunes en la conversación”.

Historiako Akademiak Garibairen errefracuen iruzkina eta azalpena egiteko agindu zion. L. Villasantek ez du uste harro egoteko eran bete zuenik egiteko hau, eta horren zergatia ere ematen digu: Aizkibelek bere garaiko euskara ongi zekien, baina aurreko mendekoa ere, horretarako liburu onak baitzitu, baina Garibairen errefracuetakoa euskara zaharra da eta hori ez omen zuen hain ongi ezagutzen...

Nekazaritzako gaietan oso aditua zen “Sociedad Económica Matritense” delakoan hitzaldiak emanez. Haren lanik gehienak euskarari buruzkoak edo euskarara egindako itzulpeni buruzkoak dira, baina badu Itun Berriaren itzulpen bat ere grekora, latinera, gaztelaniara, frantsesera eta euskararen lau euskalki nagusietara.

Iturriak eta aipamenak

Buru eta bihotz euskal letra eta jakintzari emandako gizona zela argi dago. Bere hiztegiaren sarreran egiten dituen aipamen ugariak lekuko. Hiztegia egiteko berak erabili dituen iturriak aipatzen dizkigu batez ere, baina baita jakintsuek izan ohi duten jakinminez edo bide batez espirituari atsegin emateko erabilitakoak ere.

Aita Larramendi aipatzen digu lehenbizi eta beren-beregi diosku, besteak beste, haren hiztegiak baliatu dela berea, euskaratik gaztelaniarakoa, moldatzeko. Beste hiztegi txikiagoak edo urriagoak ere aipatzen dizkigu; esaterako, Silvain Pouvreau-ren bi eskuizkribu Parisko Biblioteka Nazionalan daude. Honen *Doctrina Cristiana* ere aipatzen du eta ale bat berak duela dio. 1827tik 1828ra bitartean kopiatu zituela hitz-zerrenda hauetatik zati batzuk: “copié en billetes una gran parte de estos vocabularios; pero muchos se me perdieron [...], y los

que he podido conservar, se han aumentado en este diccionario, con otras muchísimas palabras que he adquirido en los autores que cito". Beste hauen artean Oihenarten atsotitzena sartzen duela dio, liburu horren aleak oso gutxi direlako eta, beraz, eskuragaitzak. Baina Silvain Pouvreau-ren eskuizkribuetara itzuliz, hainbat iruzkin eta aipamen dakartza; guztien artean azpimarratzekoa da Guil. Humboldt-en iritzia Parisko Bibliotekako eskuizkribu hauei buruz; hau da, Larramendiren hiru hizkuntzako hiztegia baino baliosuagotzat zituela Silvain Pouvreau-ren eskuizkribu horiek. Hitz-zerrenda hutsak ez izatean datza, dirudenez, hauen balioa; hitzen ondoan idazle klasikoen lekukotasuna eranstea, alegia. Aizkibel berak ere buruan ongi sarturik du hori eta halaxe egiten saiatzen da bere hiztegia.

G. Humboldt-ek dakartzan hiztegi eta hitz-zerrendak aipatzen dizkigu hemen Aizkibelek, bere aldetik ere zenbait iritzi gehituz:

Aita Larramendiren garaian (1732an edo) ba omen zen Azkoitian lau hizkuntzatan egindako hiztegi bat Joanes Etxeberri Sarakoak, Azkoitian mediku zen euskaltzale handiak egina. Larramendik bi egunetan eskuarteak eduki ahal izan zuela diosku eta handik lapurterazko hainbat hitz jaso zituela. Geroxeago diosku, G. Humboldt-ek dioenez Oihenart-ek hiztegi hau aipatzen duela, baina oker zebilela, Sarako Etxeberri geroagokoa baitzen... Okerra, Joanes Etxeberri Ziburukoa (teologian doktorea) eta Joanes Etxeberri Sarakoa (medikuntzan doktorea) izenez, tituluz eta sorterriz berdintsuak izatetik etor liteke. Beraz, hiztegi ezberdin bi direla diosku Aizkibelek: bata, Oihenartek aipatzen duen Etxeberri Ziburukoarena eta bestea, Larramendik aipatzen digun Sarako Etxeberrirena. Larramendiren aipamenean argi eta garbi dago nortaz ari den: "[...] el Doctor D. Juan de Echeberria, natural de Sara en Labort, hoy médico de la Villa de Azkoitia, muy docto y amante de su lengua, tiene años há compuesto un diccionario cuadrilingüe de bascuence, castellano, francés y latín, que impreso pudiera servir etc."

G. Humboldt-ek bere Mitrídates-en gehiketetan hiru liburukitan dagoen beste euskal hiztegi baten berri ematen digu. D'Uhalde Jesulagunarena da. Eta Aizkibelek dio, honezkero galdu ez bada, inon egotekotan Bordelen egongo dela. Hala ere, berak ekinahalak egin ondoren, ez duela aurkitu Bordelen, han ezaupideak ugari izan arren. Beste hiztegi bat ere aipatzen du G. Humboldt-ek, urria, hutsunez eta akatsez betea, italiar batek, Nicholas Landuchius zeritzonak, bizkaitar batzuen laguntzaz burututakoa. Ez duela ezertako balio diosku: "lleno de vacíos, y absolutamente inútil".

Beste bat ere aipatzen digu oraindik: J.M. Azpitartek Peñafloredako kondearen aginduz gipuzkeraz egina.

Euskaraz hasi berria zen frantses batek egindako hitz erabili-
lienen zerrendak aipatzen dizkigu ondoren; frantsesez eta euskaraz dago (lapurteraz). Akastuna eta zehaztasun handirik gabe idatzia izan arren, beste inon aurkitzen ez direnak dituela dio. Azken bi lan hauek Bizkaitik zehar egindako bidaiari eskuratu zituela dio G. Humboldt-ek. Sivain Pouvreau-ren bi eskuizkribu preziaturen kopiak ere lortu zituela; berberak kopiatu zituela Parisen, haietatik alfer-alferrekoa zena baizik bazter uzten ez zuela.

Aizkibelek, azkenez, bere hiztegiko iturrien artean jartzen du Lecluse-k bere Gramática Basca liburuan dakartzan bi hiztegi laburrak; bata, euskaratik frantseserakoa 3.600 hitz dituena eta bestea frantsesetik euskararakoa, 3.000 hitzez hornitua. Lan moderno eta eskuratzen erraza izanik, hartaz baliatu zela diosku.

Oraingo hiztegi gintzaren zertzelada eta joerak

Azken urteotan asko ugaritu dira hiztegiak. Era askotakoak: elebidunak, euskara hutsezkoak, handiak, txikiak, bereziak, eskola-hiztegiak... Hitz-ondare zabala biltzen duten liburuki askotako bi hiztegi argitaratu dira. Bietarik zaharrena, Manu Sotaren materialak oinarritzat harturik, hainbat pertsonaren la-

guntzaz Lino Akesolok burutua da, *Diccionario Retana de Autoridades del Euskera* izenekoa; bestea, oraindik burutu gabe dagoen Luis Mitxelena-ren *Orotariko Euskal Hiztegia*. Hamargarren liburukia da argitaratu den azkena eta erdia baino pixka bat gehiago da hori. Bien bitartean euskarak, irakaskuntzan, komunikabideetan, administrazioan... aurrera egiteko tresnak behar ditu; ezin du itxaron epe luzera hiztegi goi-mailako bat burutu arte. Horrela sortu dira unean uneko eta gizarteko talde ezberdinei zuzenduriko hiztegiak: Alde batetik UZEIk bide luzea eta lan eskergaitza darama zientzi arlo ezberdinetako hiztegi bereziak egiten; bestetik, hor daude "Bostak bat" Lantaldearen *Adorez* bildumakoak, "Elhuyar"enak, "Lur"enak, Ibon Sarasolaren *Euskal Hiztegia*... Badakigu jakin hiztegi hauek guztiok elkarren artean eragin handia dutela, hiztegiak aurrekoetatik eta aldamenekoetatik asko harrapaturik gizendu ohi direlako... Hau ez dakit garbi bekatu den, baina izatekotan guztiena da, batzuek neurri handiagoan eta lotsagabeki egin ohi dutena.

Orotariko Euskal Hiztegiak bidea markaturik, Euskaltzaindiak sorturiko lantalde bat Hiztegi Batua lantzen ari da aspaldidanik. Oraindik urteak joango dira horretan, Euskara Batuko batzordeak goitik behera berriro aztertzen baitu lantalde horrek egindakoa; baina hori egin izan dadinean, bide ziurra eta azpiegitura ona jarriko izango du euskarak lexikoari dagokionez.

Nola jokatzeko du batzorde honek? Hitz-zerrendak izaten ditu aurrean. Orain esku artean duena laugarren aztergaia da; hiru zerrenda Atik Zrakoak aztertuak ditu jadanik. Lehenengo zerrendak edo aztergaiak osatzerakoan galbahe estuagoa erabili ohi zen. Haietan euskaltzainen artean maiz erabilitako hitzak eta nolabaiteko adostasunaren bernea zutenak sartzen ziren; esaterako, Arantzazuko biltzarra egin zenean euskara baturako egin zen oinarritzko zerrenda hartan agertzen ziren hitzak, "h" letraren idazkera finkatzeko egin ziren zerrendetakoak, zortzi urte arteko haurrentzako hiztegia... Ondorengo aztergaietarako

galbahea pixka bat zabalduz joan da; esaterako, FEBStik (Egungo Euskararen Bilketa Sistematikoa), merkataritza, matematika, nekazaritza eta beste diziplina batzuetatik jaso dira hitz-zerrendak.

Lantaldeak hitz bakoitzari, nolabait esateko, bere kalifikazioa edo tokia aitortzen dio.

- Batzuetan, besterik gabe onartu egiten du, inolako arazorik ez duen hitz garbia delako.

- Beste batzuetan, onartu bai, baina onarpenarekin batera, informazio txiki bat eransten dio.

- Beste kasu batzuetan hitza beste batekin lehian egon ohi da eta biak onartzekoak izan arren, haietariko bat hobesten da, bestea bigarren mailan onartuz.

- Zerrendako hitza izan liteke onartzekoa, baina ez sarrera gisa, azpisarrera gisa baizik.

- Zerrendako hitza adibide gisa sar litekeela soilik adierazten du lantaldeak.

- Zerrendako hitza baztertu eta beste batekin ordezkatzea erabakitzen da.

- Zerrendako hitza hurrengo urrats batean erabakitzeko uzten da, argibideen txostena eskatuz eta argitu beharrekoak zehaztuz.

- Zerrendako hitza baztertu egiten du lantaldeak, ordezkorik eman gabe.

- Zerrendan ageri ez den hitz bat barrura sartzen da, batzurreko kideren batek edo batzuek hala eskaturik.

Hitzak izan ditzakeen arazoak alde askotatik etor litezke: formaren aldetik, osaeraren aldetik, grafiaren aldetik, izan ditzakeen adiera edo esanahi ezberdinen aldetik, hedadura edo erabileraren aldetik... Gerta daiteke Euskal Herri osoan erabilia izatea, Euskalki oso batean, eskualde batean edota inguru txiki batean. Maiz gertatzen dena da beste hau ere: euskarazko betiko hitza izatea, hau da, klasikoetatik hasi eta gaur arte bizi-bizirik dagoen hitza izatea; beste zenbait hitz zaharkituak izan

daitezke; esaterako, RS-en erabiliak eta gero aztarna handirik utzi gabe galduak; edota Iparraldeko klasikoeak: Leizarragak, Axularrek, Etxeparek, Ziburuko Etxeberriek..., Hegoaldekoak: Mendiburuk, Agirre Asteasukok, Uhillosek, Añibarrok, J.A. Mogelek, Frai Bartolomek, Astarloak... erabiliak eta gaur egun baztertu samar daudenak izatea; zenbait hitz maila handirik ez duten idazleengan aurkitzen dira soilik; badira ahoz erabilera handikoak direnak, baina literatura idatzitik at gelditu direnak, edota ahozko literaturan, koplaritzan, bertsolaritzan erabili direnak; hiztegieta hitzak direnak, hau da, hiztegieta jaso edo haietan leku egin dieten hitzak, baina literaturan lekukotasunik ez dutenak.

Azken urteotan, administrazioetik, irakaskuntzatik, komunikabideetatik... hitz ugari etorri da eta hor dabiltza paperetan, arlo horietako hiztegieta erdi etorkin gisa, euskarari bertakotu nahirik. Egungo bizitza modernoan euskarari leku egin nahiak eragin du ekarpen multzo handi hori. Asmoa oso ona da, baina horretan bete-betean asmatzen ez da erraz. Zer ba? Alde batetik, horrelako hitz asko berezko kutsu handirik ez dutenak edo konbentziozkoak izan ohi dira, erdarazkoen kalko antzekoak, osaeraz badaezpadakoak, euskara arlo guztietan sartu behararen sartu beharrez, premia eta presaz sorturikoak. Badira osaeraz behintzat ongi sortuak direnak, baita betiko hitzei erabilera berria emanez sortuak ere. Euskaltzaindiko lantaldeak honelakoetan ez du jokaera berdina izaten beti: nazioarteko forma denean, besterik gabe onartzen du; kontzeptua behar-beharrezkoa denean eta hori adierazteko hitza osarari dagokionez ongi sortua denean, onartu egiten du. Zientzietako hitza denean, baina maila arruntean ere nahiko sartua, onartu egiten du, beste arazorik ez badu behintzat. Maila arruntean gutxi erabilia bada, onartzekotan ere "tekn." eransten dio; hau da, maila teknikoan edota dagokion arloan erabiltzeko egokia dela. Beste batzuetan, "bebil" jartzen dio, baina oraingoz hiztegi batuko zerrendan ez zaio leku egiten; hau da, *dabilela*, egin dezala bidea...

Iparaldearen eta Hegoaldearen arteko desadostasuna izan ohi da arazorik larrienetarikoa. Hau da, kontzeptu arrunt eta berberarentzat erdaratiko bi hitz izatea, Iparaldean frantsesezko hitz gordina eta Hegoaldean espainolezko hitz gordina. Horrelakoetan irtenbide onik ez da izaten gehienetan.

Kontzeptu berarentzat, euskarazko hitz bat baino gehiago daudenean, hedadura handikoak badira behintzat, guztiak onartzen dira maila berean: *kirikino*, *triku*, *sagarroi*; *abao*, *abaraska*.

Hitzaren aldaera bat onartzen da, bestea baztertuz: *abarrots* (ez) / *barrabots* (bai); *apostu* (ez) / *apustu* (bai); *entrepresa* (ez) / *enpresa* (bai); *entseiu* (ez) / *entsegu* (bai); *enparatu* (ez) / *enparau* (bai); *errada* (ez) / *edarra* (bai); *errumes* (ez) / *erromes* (bai, adiera guztietan); *eskaratz* (ez) / *ezkaratz* (bai); *ebizi* (ez) / *ehiza* (bai); *elaberri* (ez) / *eleberri* (bai); *frutu* (ez) / *frututu* (bai); *gardu* (ez) / *kardu* (bai)...

Batzuetan bietarik bat hobesten da, baina bestea ere onartuz; euskalki mailakoa delako izan daiteke edota beste hitz batekin lehian egonik, haietariko bat bestea baino egokiagozat jotzen delako...: *abioi* / h. (hobe) *begazkin*, *aireko*; *aireplano* zah / h. *begazkin*, *aireko*; *blintxa* Ipar / h. *hegabera*; *gainontzean* Gip / h. *gainerakoan*; *gainontzeko* Gip / h. *gainerako*; *gisats* Bizk / h. *isats*...

Zer gertatzen da hedadura txikiko hitzekin edota euskalki baten soilik erabiltzen direnekin? Euskara batuko hitzaren aldaera hutsa denean, baztertu egin ohi da; esaterako, bizkaierazko *barri* baztertu eta *berri* onartzen da soilik; era berean *uri* baztertu eta *hiri* hautatzen da euskara batuan idazteko; *zidar* / *zilar* bikotean bigarrena hautatzen da euskara baturako. Baina hitz hedatuago baten aldaera hutsa ez denean, esaterako, *zapatu* / *larunbat*, *domeka* / *igande*, biak onartzen dira, baina bigarrenak hobetsiz eta lehenengoei Bizk jarriarik. Hiztegi Batuan onartzen dira hedadura aldetik esparru txikikoak direnak ere, ordezko egokirik ez dutenean batez ere; esaterako, *biao*. Hau

**siesta* baino onargarriagoa da, askoz ere gutxiago erabilia izan arren. Ingurune txikian erabilia izan arren, hitz egokia denean, esanahi hartan lehiakide garbirik, bete-betekorik ez duenean, erraz onartzen dira; esaterako, Meñakan betiko hitza da *obeurrekoa* "mesa de noche" esateko; bestalde, Euskal Herrian, guk dakigula, *mesanotxe* erabili ohi da tokirik gehienetan edota gaztelaniaren kalko hutsa den *gau-mabaita*... Umetan ikasitako beste hitz banaka batzuk aipatzearren, *nontzebarri* (guztia jakin nahirik, inoren kontuetan sartzeko ahaleginetan begi eta belarriak zoli izan ohi dituen; *non zer berri* aritzen dena), *asago* eta *asagotu* (*urrun* eta *urrundu*) hiztegi batuko lantaldeak ontzat eman ditu Bizk jarriarik. Dena dela, hedadura txiki-ko hitzek, idatziz gutxi erabili direnek ahoz normal eta forma hartan erabiltzen diren lekukotasun ziburra behar dute hiztegi batuan onartuak izateko. Hau, ertzeko euskalkietako kasua izaten da gehienetan, baina gipuzkerakoa nahiz lapurterakoa ere izan daiteke. Euskalkietako hitz batzuei, ekarpen gisa, hiztegi batuan sarrera eman nahi zaienean, zein forma proposatu izan ohi da lehenik erabaki beharrekoa: *erdu bona* (zu); baina *erdu bona* (zuek) / *erdue bona* (zuek) / *erduze bona* (zuek)...

Handi-handika jarri ditut hiztegi gintzan gaur egun nabari diren zenbait joera. Orotariko Euskal Hiztegiak altxor handia biltzen du. Hala ere tamalgarria da ahozko euskararen hango eta hemengo hainbat gauza eder idatziz biltzerik ez izatea. Lekuko bikainen hitz-jarioa gelditu orduko, gure ondarearen biltzaileei lanerako gogoia eta kemena opa diet.

Luis Baralazarra Txertudi